2019ko urtarrilean erregistratutako langabezia

2019ko urtarrilean zehar LANBIDEko bulegoetan 1.076 langabe gehiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du hazkundea balore erlatiboetan %0,90ekoa izan dela, eta 120.750 langabe daudela. Hilabete honetako hazkundeak, oro har, handiagoak izan dira; hala ere, 2018an langabeziaren hazkundea txikiagoa izan da. Azken 15 urteetako bigarren hazkunde txikiena da, honenbestez, hilabetea positiboa izan dela esan daiteke.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, 7.576 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 297 gutxiago.2018ko hilabeteen gehiengoan gertatutakoak jarraipena izan du; urte arteko langabeziaren jaitsiera erritmoa gutxitzea,hain zuzen ere .



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean murriztu egin da (%1,9) eta emakumezkoen artean hazi (%3,1). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean %6,4 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, %5,4 soilik. Gaur egun langabeen %56,9 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan hazi da, 35-44 tartean izan ezik (%1,1a jaitsi da). 16-24 urtekoen adin tartean izan den hazkunde nabarmenena (+%5,4). Urte arteko saldoan, 24 urte azpikoen bilakaera alde batera utziz (langabezia hazten da), korrelazio handia ikusten da langabeziaren jaitsieraren eta langabezian dauden lan eskatzaileen adinaren artean. Jaitsiera handiena 25 eta 44 urte arteko tartean izan da.Langabeen erdiak (%50,5) 44 urte baino gehiago ditu, %24,7ak ez ditu 35 urte baino gehiago eta beste %24,8a 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urtarrilean zehar eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, 414 langabetu gutxiago, %4,6ko murrizketa. Lehenengo sektorea eta industria sektoreak ere %1,6 eta %4 murriztu dira hurrenez hurren (43 eta 606 langabetu gutxiago). Zerbitzu sektorean %2,5 hazi da langabezia (1.963 langabe gehiago). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean 176 langabe gehiago zenbatzen dira. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, %15,6ko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (%8,6ko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handiena izan duen jarduera enplegukoena izan da 536 langabetu gutxiagorekin, eta ondoren hezkuntza (-359). Igoera nabarmenak izan dituzten jarduera batzuk hauek izan dira: txikizkako merkataritza (+570) eta egoitzetako laguntza (+489).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 6 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 1.082 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (%9,8a, epe laburreko %1,6aren aldean). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Urtarrilean langabezia hiru lurraldeetan hazi da: Araban %1,3, Gipuzkoan %1,7 eta Bizkaian %0,4.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena %6,7ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio %5,2ko jaitsierarekin eta azkenik Araban %4,2 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 314 pertsonatan hazi da langabezia, Bilbon 132 pertsonatan eta Donostian 282 pertsonatan. Langabezia nabarmen hazi diren eskualdeak Bidasoa Behea (+175) eta Ezkerraldea (+150) izan dira. Aldiz, eskualde hauetan langabezia jaitsi egin da: Durangesado (-258) eta Aialako Ibarra (-69).

Urtarril honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek dira; Oion (%21,65), Sestao (%19,05), Lanestosa(%19,05), Alonsotegi (%16,32) eta Karrantza Harana/Valle de Carranza (%16,24).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko urtarrilean 37.375 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 2.299 langabe gehiagok. Langabeen %31k du gizarte-prestazio hori jaso-

tzeko eskubidea. 22.598 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen %18,7 dira horiek. 14.777 langabek (%12,2), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (%34,2), Araban eta Bizkaian %30,5ekoa eta %29,6koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 1,6 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, berriz, 1,5.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen %61,5ek (74.272 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 119 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan %6,2 jaitsi da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen %8,8 dira. Talde horretan %1,5 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean %4,8 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.217 dira, hau da, langabeen %17,6. Talde hau urtarrilean zehar %2,8 hazi da, eta azken urtean %4,6 murriztu da.

Azkenik, langabeen %12,1ek (14.669 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau dutenen artean %1,6 hazi da langabezia azken hilabetean eta %7,2 murriztu da azken urtean, talde guztietan handiena urteko bilakaeran.

- **JATORRIA**

Langabeen %15,9 (19.157 lagun), atzerritarrak dira. Abenduarekin alderatuta, ikusten da langabezia hazi egin dela atzerritarren artean %0,4, eta bertakoen artean %1,33.

Langabe atzerritarren %35,2a Afrika iparraldekoak dira, %21,5a Latinoamerikatik datoz, %19,8 Europako Esparru Ekonomikotik, %14,3a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta %5,6, azkenik, Asiatik. Urtarrilean langabezia Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien (-%4,1); hazkunde handiena, aldiz, Latinoamerikatik datozenen artean izan da (+%7).

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 83.469 langabe gehiago daude abenduan baino (%2,6ko igoera). Horrek esan nahi du guztira 3.285.761 langabe daudela erregistratuta; EAEn, berriz, %0,9 hazi da. EAEko langabeziak mugakide diren autonomia-erkidegoetakoena baino bilakaera hobeagoa izan du; Nafarroan %2,2 hazi da, Gaztela eta Leonen %2,7, Errioxan %2,1 eta Kantabrian %5,3. Katalunian %1,4 hazi da eta Madrilen %3,3.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-%5,5) eta EAEn (-%5,9).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko urtarrilean

	urt-2019	abe-2018	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	52.031	53.021	-990	-1,87
EMAKUMEZKOAK	68.719	66.653	2.066	3,10
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	7.843	7.439	404	5,43
GIZONEZKOAK	3.863	3.789	74	1,95
EMAKUMEZKOAK	3.980	3.650	12	9,04
25-44 URTE:				
GUZTIRA	51.946	51.789	157	0,30
GIZONEZKOAK	21.673	22.378	-705	-3,15
EMAKUMEZKOAK	30.273	29.411	862	2,93
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.961	60.446	515	0,85
GIZONEZKOAK	26.495	26.854	-359	-1,34
EMAKUMEZKOAK	34.466	33.592	874	2,60
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.681	2.724	-43	-1,58
INDUSTRIA	14.467	15.073	-606	-4,02
ERAIKUNTZA	8.646	9.060	-414	-4,57
ZERBITZUAK	80.618	78.655	1.963	2,50
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.338	14.162	176	1,24
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	20.052	19.792	260	1,31
BIZKAIA	68.472	68.204	268	0,39
GIPUZKOA	32.226	31.678	548	1,73
EAE	120.750	119.674	1.076	0,90

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.204	11,3%	175	4,34	-121	-2,80
Oarsoaldea	3.727	10,4%	95	2,62	-125	-3,25
Donostia-S.Seb.	7.960	9,1%	282	3,67	-572	-6,70
Donost.Mendebaldea	3.088	8,6%	24	0,78	-229	-6,90
Tolosaldea	2.037	8,8%	-20	-0,97	-217	-9,63
Urola Erdia	1.333	8,9%	-4	-0,30	-99	-6,91
Goiherri	1.637	7,9%	-15	-0,91	1	0,06
Deba Garaia	2.559	8,6%	-14	-0,54	-24	-0,93
Deba Behera	2.837	10,8%	-64	-2,21	-194	-6,40
Urola Garaia	1.110	9,3%	46	4,32	-60	-5,13
Urola Kosta	1.734	7,8%	43	2,54	-116	-6,27
GIPUZKOA	32.226	9,3%	548	1,73	-1.756	-5,17
Vitoria-Gasteiz	15.624	12,7%	314	2,05	-830	-5,04
Aialako Ibarra	2.355	12,5%	-69	-2,85	-70	-2,89
Arabar Errioxa	738	13,9%	3	0,41	2	0,27
Arabako lautada	690	9,4%	17	2,53	-47	-6,38
Gorbeia inguruak	299	6,5%	7	2,40	45	17,72
Arabako Ibarrak	407	8,4%	-2	-0,49	-5	-1,21
Arabako Mendialdea	91	6,1%	-10	-9,90	-26	-22,22
ARABA	20.052	12,3%	260	1,31	-887	-4,24
Gobela	4.902	9,4%	127	2,66	-403	-7,60
Txorierri	2.290	10,0%	38	1,69	-164	-6,68
Uribealdea	3.024	9,2%	23	0,77	-235	-7,21
Durangaldea	3.303	8,9%	-258	-7,25	-170	-4,89
Busturialdea	2.342	10,8%	50	2,18	-56	-2,34
Lea-Artibai	1.104	9,2%	-29	-2,56	64	6,15
Enkarterriak	2.161	13,9%	-19	-0,87	-219	-9,20
Arratia-Zornotza	1.498	8,7%	-45	-2,92	-55	-3,54
Arratia-Nerbioi	1.375	10,5%	25	1,85	-120	-8,03
Bilbo	23.604	14,1%	132	0,56	-1.630	-6,46
Ezkerraldea	17.980	14,4%	150	0,84	-1.581	-8,08
Ibaizabal	4.735	11,8%	77	1,65	-322	-6,37
BIZKAIA	68.472	12,3%	268	0,39	-4.933	-6,72
EAE	120.750	11,3%	1.079	0,90	-7.578	-5,91

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.